

Xabier Letona



DANI BLANCO

Pertsona anitzak, eduki aberats baterako

NAFARROAKO aldaketaren indarrek aurrera jarraitzen dute, poliki baina seguru. Joan den astean Geroa Bai, EH Bildu, Ahal Dugu eta Ezkerrak gobernu programa adostu zuten eta hilaren 20an Nafarroako Legebiltzarrak Uxue Barkos Nafarroako Gobernuko lehendakari izendatuko du.

Adostutako gobernu programa asmo handikoa da, oso aurrerakoa eta landua. Bere alde ahula da berau gauzatzeko diru ahalmen handia behar dela eta sasoi hauek direnak direla. Batetik, gobernuak badituzte arau oso estuak zorpetze eta finantzazioari begira; bestetik, gizartean botere faktiko gisa aritzen diren eragile ugari eta goi eta klase ertainek ez dituzte batere begi onekin ikusten zerga igoerak; eta azkenik, eta zehazki Nafarroako Gobernuari begira, aurreko gobernuak dirutzak bideratu ditu jada hainbat azpiegitura proiektuetara.

Esate baterako, 18 edo 25 urte-tik gorako herritarrentzat –adina erabakitzeke dago– oinarritzko errenta unibertsala aurreikusten da programan eta lehen sei hilabeteetan indarrean jarri behar da gainera. Gauza asko zehazteke dago, baina edozein eratan, milioi euro asko beharko da neurri hau bideratzeko.

Osasunean, etxebizitzan, kulturean, hezkuntzan, hizkuntzan, herri administrazioan, ingurumenean, berdintasunean, industrian... denean irakur liteke behar adinako finantzazio egoki eta duina bideratuko dela alor guztietara. Nola egingo den ez, ordea. Bai, diru bilketan ahalegin berezia egingo dela azpimarratzen da eta horretara bideratutako zerga erreforma ere iragartzen da, baina hemen nekez

espero liteke miraririk epe motzera. Horrez gain, batek daki zein egiatzko egoera ekonomiko topatuko duen Barkosek aginte makila eskuratzean.

Baina hori da bidea, zalantzarik gabe, sinesten dena paperera eramatea eta aurrera ateratzen saiatzea. Horregatik da anbizioa programa eta horregatik txalotu behar da lau indar desberdinen artean egindako lana eta ahalegina. Eta horregatik, lau indarrak gobernura aupatu dituzten gizarte sektoreek legegaldian zehar oso adi eta zorrotz jarraitu beharko dute gobernuaren jardura. Alderdiek asko zehaztu dute, eta horrek asko errazten du jarraipena.

Gobernu eraketa dator orain eta Barkosek eta Geroa Baik badute argi euren ikuspegia, baina kanpotik ez da hain argi ikusten

Instituzioek egingo dutelakoan, halako aldaketetan izaten da gizartea desmobilizatzeko arriskua eta bai aldaketaren alderdiek eta bereziki gizarte eragileek ere, ardura bereziz zaindu beharko dute hori ez gertatzea. Nafarroan azken urteetan izan den gizarte eraldaketan oinarritu da aldaketa, eta berau elikatzen jarraitzea izango da gobernu berriaren arrakasta eta iraupenaren klabeetako nagusia.

GOBERNU eraketa dator orain eta Uxue Barkosek eta Geroa Baik badute argi euren ikuspegia, baina kanpotik ez da hain argi ikusten. Gobernuaren ardatza eta bizkarrezurra Geroa Bairengan oinarrituko

bide da; taifa erresumak gobernuan finkatu ez daitezzen ez da ohiko koalizio gobernu bat izango; eta alderdietako egiturekin lotura handia duten pertsonak saihestuko bide dira. Gobernu teknikoaz hitz egin da, baina profil politiko sendoa nahi dela ere bai. Dakienak ulertuko du zertaz ari den Barkos, herritarrak izan ditzake susmoak, baina ikusi arte ez da samurra ulertzea horrek guztiak zer esan nahi duen eta, batez ere, nola gauzatu den.

Lehenik edukian jarri dute ahalegina aldaketaren indarrek eta fruituek ematen dute esperantzarako tarte handia, beraz, hobe berdintasun pentsatzea gobernu eraketari dagokionez ere.

Edukiak, alabaina, pertsonak bideratzen dituzte eta ez da samurra pentsaera berdintsuko pertsonak –demagun gehienak Geroa Bairen ingurukoak–, oso proposamen zabala biltzen duen programa desberdinen artean bezala eramatea. Zer usaintzen da? Batez ere Geroa Baik EH Bildurekin duen duen mesfidantza. Ezkerrak nahiko argi adierazi du gobernuan egon nahi duela. Ahal Duguk, aldiz, ez duela egon nahi, nahiz eta batzarretan ahots ugariaren aldetik aipatu den gizarte saila hartzeko gogoia. Eta EH Bilduk ere argi adierazi du egon nahiko lukeela.

Egia da desberdintasuna kudeatzea ez dela samurra, baina horretan asmatzen duen enpresa, eskola, elkarte... edo gobernuak bestelako sendotasuna eta emaitzak ditu. Pena litzateke edukian lortutako emaitza aberats hori ez islatzea gobernuaren osaketan. Pluraltasuna gizartean balore gisa saltzeko erarik egokiena da norbera pluraltasunaren kudeaketan buru-belarri murgiltzea. ■